



7.-
NEOKLASIZISMOA

SARRERA

EUSKAL POESIAREN HASTAPENAK bideo-seriea euskal literaturaren historiaren atal garrantzitsu baten berri emateko asmoz egin dugu. Bideo-seriean ahozko euskal literaturarekin hasi eta, XVIII. mendeko Larramendi eta jarraitzaileen garaia bitartean, zazpi kapitulutan, Europan izan ziren korronte nagusiak hobekien ordezkatzan dituzten autoreak kokatu ditugu. Eurak izan dira, neurri handi batean, gaurko euskal literatoen ereduak.

Garaia eta garaiko literatura aztertzeaz gain, bideo-serieak euskal literaturaren alorrean lehen urratsak eman zituztenen berri eman nahi du. Bai garaian garaiko egoera soziopolitikoak aurkeztuz, bai inguruko herri eta nazioetako sortzaileen eragina aztertuz.

Horregatik guztiagatik, uste dugu ezinbestekoa dela batxilergoan diharduten ikasleei Euskal Herrian Erdi Arotik aurrera izan diren lehen literatur ekintzak eta, inguruetatik hizkuntzen indarra itzela zen garaian, euskara hizkuntza literario bilakatzen lagundu zutenen izaera erakustea.

Bideo hauek euskaraz komunikatzeko gai diren ikasleentzat eginak daude, D ereduan ikasten ari diren Batxilergoentzat, alegia.

EUSKAL POESIAREN HASTAPENAK bideo-seriea hogeita minutuko iraupena duten zazpi bideoz osatua dago.

EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA

Jakintzagaiaren helburu nagusia testuen ulermenari eta ekoizpenari loturik dauden komunikazio-trebetasunak garatzea da.

Etaparen beharrianak kontuan izanik, hizkuntzaren erabilera formalenei buruzko literatura, kultura eta zientzietako diskurtsoak izango ditu aztergai nagusiki jakintzagai honek.

Literaturak hausnartzeko bidea emango die ikasleei, gizakiak bere bizipenak eta pentsamenduak besteengana helarazteko erabili izan dituen testu-mota eta komunikaziorako estrategiei buruz.

Hezkuntza literarioa lortu behar da, irakurle gaituak prestatzea eta irakurtzeko zaletasuna piztea helburutzat harturik. Izan ere, literatura kultur aberastasuna ez eze, giza portaeraren eta norberaren buruaren ezagutzan sakontzeko bide egokia da.

Testuen aukeraketa egiterakoan, Euskal Literaturako idazle, jenero, eta garairik esanguratsuenak hautatu beharko dira, ahal den heinean gazteen mundu-ikuskerara eta testuinguruarekin lotuz.

Garrantzitsua da ikasleek literatur forma eta genero nagusiak ezagutzea, betiere testuak sortu diren testuinguru historiko eta kulturalera hurbilduz eta generoek historian zehar izan dituzten aldaketak kontuan hartuz.

EUSKAL POESIAREN HASTAPENAK

Seriearen asmoa ikaslea hausnartzen jartzea da.

Horretarako, poesiaz baliatzen gara.

Poemen gaineko azalpenak, ikasleak ez daitezela beldurtu, modu arin eta ulerterrazean ematen ahalegindu gara.

Serieak, poesia lagun, gure historiaren zati baten berri eman nahi du.

Izan ere, gizartearen gorabeherek pertsonengan duten eragina, ederki asko islatu ohi dute artistek euren obretan.

Poesigintzaren gainean hausnarketa egiteak, pertsonen historia ezagutzeko abagune aparta eskain diezaguke.

HELBURU OROKORRAK

Literatur lanak modu kritikoan interpretatzea eta balioestea, beren izaera artistikoa gauzatzen duten elementuak identifikatuz, hizkuntzaren erabilpen sortzaileari erreparatuz, kultur tradizioarekin lotuz eta sortzeko ezaugarri sozialak ezagutuz.

Euskal literatura ezagutzea, betiere kultura europar eta unibertsalean kokaturik, eta azterketarako bibliografi iturriak aurkituz eta era kritikoan erabiliz.

Literatur lanen aurrean jarrera zabala erakustea, lanotan norbanakoen eta gizartearen islaz konturatuz eta kanpoko mundua irudikatze ahalmenaz ohartuz.

Irakurketaz gozatzea, eta irakurketa aisialdirako gozamenezko ekintzat hartzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Literatur lanen edukia interpretatzea, generoen egiturekin eta erabilitako prozedura erretorikoekin erkatuz.

--Literatur genero jakin batean kokaturiko lanak interpretatzeko ahalmena balioetsi nahi da, betiere genero horri dagokion prozedura erretorikoak eta literatur tradizioa abiapuntutzat harturik. Horretarako, testu literarioaren iruzkina landu eta literatur lan osoak edota literatur lanen zentzu orokorra apurtzen ez duten atal luze samarrak irakurri beharko dira.

Euskal Literaturako lan esanguratsuenak interpretatzea, lanak sortu diren garaia, egilea eta dagokien ingurune sozial, historiko eta estetikoak erlazionatuz eta kanpoko literaturekiko loturak eginez.

--Irizpide honen helburua, ikasleek literatur fenomenoaren ingurune historiko jakin batean sortzen den gertakari kultural gisa ulertzeko duten ahalmena balioestea da. Horretarako, literaturaren garai esanguratsuen ezaugarriak buruzko ezagupenak erabiltzen ikasi, informazio-iturri egokiak aurkitu eta literatur lanen interpretazioan lorturiko informazioari iritzi kritiko aplikatu ere.

Literatur lanen eduki ideologikoa ezagutzea eta lan hauek gaurko gizartearekiko duten esanahiaz iritzi kritiko osatzea.

--Irizpide honen bitartez, ikasleak literatur lanen pean dagokeen ideologia ezagutzeko duen ahalmena balioetsi nahi da. Horretarako, hiru puntu hauei erantzungo dio:

- egilearen lanarekiko asmoari;
- lana kokatzen den testuinguru historiko eta sozialari;
- gaur egun lanak sorarazten dituen interpretazioei.

EDUKIAK

3. atala. Literatur diskurtsoa

A) Kontzeptuzko edukiak:

- Gertakari komunikatibo eta estetikoak. Kultura eta kultur gertakaria.
- Ahozko literaturaren ezaugarriak bai Euskal gizartean, bai Europan eta munduan.
- XV. eta XVIII. mendeen bitarteko korronte literarioen isla orduko euskal idazleen lanetan.
- Euskal literatura idatziaren historia: XV.-XVIII. mendeetako datu nagusiak

B) Prozedurazko edukiak:

- Olerki esanguratsu zenbaiten irakurketa, azterketa eta interpretazioa.
- Literaturaren muga dauden zenbait testuren irakurketa, azterketa eta interpretazioa.
- Obra literarioen testuinguru historiko eta soziala ulertzeko tresnen aplikazioa.
- Norberak sortutako testu poetikoen idazketa eta irakurketa.

C) Jarrerazko edukiak:

- Literatura gertakari komunikatibo eta estetiko gisa balioestea, baita norbanakoaren islapen eta errealtate historiko eta sozialaren adierazpen bezala ere.
- Literatur testuen irakurketa ekintza atsegin eta aberastasun-iturri pertsonal eta kultural gisa balioestea.
- Literatur lanen ekoizpen, hedapen eta hartzea baldintzatzen dituzten alderdi soziologikoak ezagutu eta modu kritikoan balioestea.
- Literatur lanen eduki ideologikoa ezagutzea.

5. Atala hizkuntza eta hizkuntzak

A) Kontzeptuzko edukiak

- Euskararen historia. Euskararen hedapena historian zehar.

B) Prozedurazko edukiak

- Euskararen ibilbidea ahozkotasetatik neoklasizismora. Sarako eskola, Larramendiren eskola.

C) Jarrerazko edukiak

- Euskararen batasunaren aldeko jarrera positiboa, tokian tokiko euskalkiak ere bultzatuz.

EUSKAL POESIAREN HASTAPENAK

Nola erabili

Seriea Euskal Literatura gaia ematen duenak XV. - XVIII. mendeko literaturaz mintzatzerakoan erabiltzea proposatzen da. Ondo legoke, bideoa martxan jarri aurretik, garai hori, gainetik bada ere, klasean aipatua izatea.

Lehenengo bi kapituluetan ez daukagu autore protagonistarik. Ahozko literaturaren munduan sakontzen dute.

- Lehenengoan, **dekorazio-olerkiak eta kopla zaharrak** dira mintzagai.
- Bigarrenean, Erdi Aroko **euskal baladak**.
- Hirugarrenean, Zuberoko **pastorala**.

Hirugarren kapitulua, pastoralari eskaintzen zaio. Ahozkotasunaren eta idazketaren artean kokatu ohi dira pastoralak.

- Errenazimendua **Bernart Etxepareri**.
- Barrokoa **Pedro Agerre Axularri** eta **Joanes Etxeberri** Ziburukoari.
- Klasizismoa **Oihenarti**.
- Neoklasizismoa **Xabier Maria Muniberi** eta **Pedro Ignazio Barrutiari**.

Beste lau kapituluetan idazketa da nagusi, eta bakoitza idazle bati edo biri eskainiak daude.

Zazpi bideoetan, haien poemak irakurketaz gain, bakoitzari dagokion garaiko arte korrontearen berri ematen da.

Errezitalariek euskara batuan eginiko bertsoak irakurriko dituzte, ikasleak ez dezan izan aparteko arazorik lehen entzunaldian ulertzeko.

Jatorrizko bertsoak gida didaktikoan emango dira, dagozkien azalpenekin. Horrela ikasleek bi bertsoak alderatu ahal izango dituzte, eta irakasleak egoki baderitzo, euskalkia landu ahal izango du.

Poemak lantzeko proposamenak

- Poemaren gaia identifikatzea.

- Poemaren laburpentxo bat egin dezatela eskatzea (ahoz zein idatziz).

- Entzundako poemen kopiak banatzea ondoko ariketak egiteko:

-lexiko landu

-baliabide literarioak identifikatu eta aztertu

-**Testu poetikoen irakurketa espresiboa:** errezitalaia nola irakurtzen dituen ohartzeko eskatuko diegu ikasleei; ondoren, poesia ahots gora irakurtzeko esango diegu. Horretarako, beldurrak uxatzea ezinbestekoa da, girotze-lana egin behar da, beraz. Adituek eta, batez ere, poetek olerkiak entzuteko direla diote, bakarrik gaudenean ere, ahots gora irakurri beharrekoak direla. Horixe esango diegu ikasleei.

-**Literatur lantegia:** ikasturtean zehar egin daitekeen ekintza da hauxe. Neskak eta mutilak hamabi eta hemezortzi urte bitarteko epe honetan hasten dira poemaren bat edo beste idazten. Horixe izango da irakaslearen erronka, **poesiazale direnak identifikatu eta haiei bultzadaxo bat ematea.** Bideo-serieko poemen gainean bertsio pertsonalak egiten has daitezke ikasleak; geroago, beren poema propioak idazteko.

Oso garrantzitsua da ikaskideen aurrean irakurtzera ausartzea.

Ondoren, gainerako ikasleak entzundakoari buruzko euren iritzia emango dute.

Liburuak

Orokorrak

Sarasola, Ibon: *Euskal literaturaren historia*, Lur argitaletxea, Donostia, 1970

Lekuona, Juan Mari: *Ahozko Euskal Literatura*, Erein, Donostia, 1982

Diaz Plaja, D.: *Literatura vasca*, Madril, 1972

Onaindia, Santi: *Euskal literatura*, Etor, Bilbo, 1972-1977

Kortazar, Jon: *Euskal literaturaren historia txikia*, Erein, Donostia, 1997

NEOKLASIZISMOA

Aralar, J.: *El conde de Peñaflores y los caballeritos de Azkoitia*, Buenos Aires, 1942

Juaristi, J.: *El borracho burlado: transiziozko komedia bat*, Euskera, 31: 1, 1986.

Areta, L.M.: *Obra literaria de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais*, Caja De ahorros de Vitoria, 1976.

Lakarra, J.: *Larramendiren hiztegegintzaren inguruan*, ASJU, 19: 1. 1985.

Barrutia, P.I.: *Gabonetako ikuskizuna. Acto para la Nochebuena*, Diputación Foral de Alava. 1983

www.vc.ehu.es/gordailua

7.) NEOKLASIZISMOA

Orain arte euskal literatura idatziaz mintzatu garenean Ipar Euskal Herriko idazleak izan ditugu ahotan. Neoklasizismoaren garaian, XVIII. mendean, Hego Euskal Herriko idazleek hartuko dute protagonismoa. Garai honetan, batez ere Gipuzkoak, ekonomia aldetik aurrerapen itzela ukan zuen, "Compañía Gipuzcoana de Navegación de Caracas" izeneko elkartearen eskutik.

Mende honi buruz mintzatzean, ezin gaitezke ahanztu kultur aldetiko beste mugimendu batez: "Real Sociedad Vascongada de Amigos del País" delakoaz. Elkarrearen sortzaile izan zen Xabier Maria Munibek bi antzerki lan utzi zizkigun.

Baina, mende honetan inola ere ahanztu ezinezkoa, Manuel Larramendi je-suita da. Berak esnarazi zuen Gipuzkoan eta Bizkaian jendea. Iparraldean Sarako eskola sortu zen bezala sortu zen Hegoaldean Larramendiren eskola.

Aita Larramendi euskal hizkuntzaren lehen arau-emailea izan zen.

El imposible vencido, gramatika da. Deklinabidea, aditza, joskera, azentua eta olerkiak dira ukitzen dituen gaiak.

De la antigüedad y univrsalidad del vascuence..., euskara goratzeko eta haren berezitasunak adierazteko idatzi zuen. Euskara hizkuntza bikaina, arrazionala eta filosofikoa dela dio.

Diccionario trilingue, lanean, Larramendi, erdal hitzei euskarazko baliokideak aurkitzen ahalegintzen da.

Bi puntutan laburbil daitezke Larramendiren ekarpenak:

Euskararentzat hizkuntza mailako tratamendua lortu zuen.

Hiztegi mailako erregistro kultu baten gutxienekoak aipatu zituen.

PEDRO IGNAZIO BARRUTIA BASAGOITIA

Aramaio, 1682 - Aramaio, 1752

GABONETAKO IKUSKIZUNA: ACTO PARA LA NOCHEBUENA.

Antzerki-lana da. Hara zer dioen Ibon Sarasolak: "Hain zuzen, bere originaltasunean datza obraren merito handienetarikoa bat. Egitura aldetik orduko teatrogintza irauli zuen. Pirandelloren lehen etapako obren aitzindari da"

Teatro klasikoaren hiru legeen unitatea, **lekuaren, denboraren eta ekintzaren** unitatea, albora uzten du eta **pertsonaiak, tokiak eta garaiak** erabat nahastuta ematen ditu.

Mitxelenak zera dio *Gabonetako ikuskizuna* antzezlanari buruz: "Ekintza bikoitza da, hein batean, eta hala dira pertsonaiak ere. Iragana eta orain, sakratua eta profanoa, Belen eta Arrasate etengabe gurutzatzen dira eszenatokian, baliabide trebe eta xehe baten bitartez."

GABONETAKO IKUSKIZUNA

San Jose

Izorra sentitzen dot neure esposa
Aditu ezin dot nik zer dan kausa
Dontzeila bat hain garbia
Nola zaren zu Maria
Nola da posible;
ay, ay, ay ene!
Ez dot nik merezitzen zeugaz gelditzea
Zer egingo neuke; ai! ene tristea
Fuerza zait juatea
Imposible egotea
Zeuengandik ausente;
ay, ay, ay ene!

Aingerua

Jospeh itzi bekio pentsamentu horri
Bihotzeko pena desterra bedi,
Zure esposagan ez da posible
Inork edirozea kulparik batere
Labur da gizonaren adimentua
Aditzeko Jaunaren ordenatua
Espiritu Santuak geriza eginik
Jesus zaikola Birjina gaindik.

GABONETAKO IKUSKIZUNA

Ama Birjina

Trinidad altuko seme bakarra
Arren adi ezazu geure negarra
Zatoz Orienteko eguzki klarua
Akordadu bekizu Adan itsua
Adanek egin eben itsurik bekatu
Haren eta geure kulpak damu deusagu
Merezidu ez arren barkazioa
Badakigu izan zarana piadosoa
Profeta sagraduak eskribidu eben
Nola zen Jaun handi bat jaioko Belenen
Bera zala izango salbadorea
Desegindu dezan gure kulpea
Dontzeila bategandik jaioko zala;
Nor izango ote dau Jaun honek Ama?

Aingerua

Ave mila bider Birjiña Maria
Ni naiz zeru altuko mandataria
Zeruetatik dakart embajadea
Zeu zarala izango Jaunaren ama.

Ama Birjina

Ezagutu ez badot sekula gizonik
nola jaioko da Jaun hori neuganik?

Aingerua

Ez dozu zer ipini batere dudarik
Ez eta zeruarentzat imposiblerik.

GABONETAKO IKUSKIZUNA

Grazioso

Lian, lan bere, lian lan bere gabaren alegrea
Lian, lan bere gauza ona dok buzkantz ondo betea
Lian, lan bere, hementxen datoz hamar libra okela
Lian, lan bere birao gura ez dala ene sabela
Lian, lan bere, bai nik ekarri presentean neurekin
Gezurrik bateré asmatu baga zazpi otxaba txakolin
Afaritako ez zela falta arrain zabala salsatan
Salsatako zeruak jakin zenbat intxaur jo guran
Lian lan bere, Lian lan bere ondo nago kontuan
Saltsa jaiten hiru motrailu pedazadu nituan
Lian lan bere irensei dauz ehunda hainbat gaztaina
Egia da ta hartu eben lagun bik garau bana
Sagarrak ere ez ziren falta mispil ustelak abondo
Lian lan bere ediro zan eta ene tripea gaur ondo
Ogiak ere baziran hiru, bakoitza lau librakoa
Lian lan bere ez zegoela geldirik orduan ahoa
Lian lan bere etxetik nator egiten paseadea
Lian lan bere dijeritzeko neure afari puskea
Lian lan bere, Lian lan bere

GABONETAKO IKUSKIZUNA

Luzifer

Izanik infernuko prinzipe handia
Demonio guztien agintaria
Ni orain indar бага ni orain loturik
Zenbat bazter baten jaiogatik
Luzifer altibo soberbioa
Nun da antzinako hire brioa
Pena garratz, rabia, tormentu handiak
Abrasatzen deust errai guztiak
Ireki bedi lurra irentsi nagi
Sekula hainbat pena ez dot euki
Ene infernua dago Belenen
Ez naiz atrebitzen gaizki esaten
Señora virtuosa (zer esango dot
Gaizki nahi arren esan ezin dot)
Señora virtuosa; ai ene tristeia!
Andra guztien artean kulpa bagea
Dontzeila dagoela semea egin dau
Nik ezin aditu dot misterio hau
Han dago agura bat ez mundukoa
Gura nukean baino santuagoa;
Aí ni! mila bider desdixadoa!
Nola hautsi deusten neure burua
Orain portalean jaiogatik dan horri
Auzia emango deusat sekula beti
Gizonak ene kontra hainbat podere
Gizona izatea ez da posible
Nun haiz Asmodeo, nun haiz Berzebu
Okasino honetan fabore indazu
Fabore infernua, fabore, fabore,
Lagun izango dogu Herodes errege
Zierra, zierra, guerra, guerra.

XABIER MARIA MUNIBE
Azkoitia, 1723 - Azkoitia, 1785

Bi lan txiki utzi zituen euskaraz Munibek:

-*El borracho burlado*, euskaraz eta gaztelaniaz osaturiko opera bat da.

-*Gabon sariac*, Eguberri kanten tradizioan sartzen dena.

Gabon sariac obrako bertsoak

El borracho burlado obrako bertsoak baino

biribilagoak eta landuagoak dira.

GABON SARIAC

Ezagun du munduak
Jesus jaio dena;
Ain dago mudatua,
Ez dirudi lena;
Len guzia zan pena,
Negar, nahigabeak,
Eta orain atsegin, gusto,
Algara, parreak.

Gorroto, errierta,
Auziak ta gerra,
Gaitzak, gose, gezur ta
Intentzio okerrak
Juanik, ia ez dago
Ezerren bildurrik,
Eta hala dago mundua
Zeru bat eginik.

Abogadu, eskribau
Eta merioak,
Mediku barbero ta
Botikarioak,
Ez dira behar; ta hargatik
Izango da sarri
Hipokrates gajoa
Saguen janari.

Ezpatak, lantzak eta
Beste arma guztiak
Erositzen dituzte
Errementariak;
Ta alperrikan ez dadin
Galdu burdin ura,
Enpleatzera doaz
Gure probetxura.

Atxur, burdinara ta,
Golde bihurturik,
Nekazari langinak
Ongi giaturik,
Emango digu lurrak
Garia ta artoa,
Gaztaina, sagardoa
Ta ardoa nahikoa.

Garia ta artoa
Merke ta ugariro,
Gaztaina ta sagarra
Berriz, urte-oro;
Ta ardoak, galdurikan
Lehenko malizia,
Ez gaitu mozkortuko,
Edan zia-zia.

Ez da onezkero esango
Gezurrik batere,
Egia esango dute
Dendariak ere:
Juan da hemendik tranpa
Ta fede gaiztoa,
Ia ur gabe saltzen da
Tabernan ardoa.

Basa arteko piztiak
mantso-mantso egiñik,
Ez dute ja alkar jaten,
Ta hain gutxi gizonik.
Bat eginik guztiak
Alkarren artean
Bizi dira etsai gabe,
Kontentuz, bakean.

Otsoa ta ardia
Zelai zabalean
Sarri ikusten dira
Biak jolasean;
Alberdanian txita
Azeriarekin,
Portugesa laztanga
Gaztelaubarekin.

Hauxe bai dela egiaz
Denbora urrezkoa,
Ta ez lehen koplari
zaharrak erakusitakoa;
Orain haien amesak
Egia sorturik,
Ikusten ari gera
pozez zoraturik.

Baina kanta berri hau
Gehitxo luzatu da,
Nere eztarri tristea
Ia urratu da;
Nahiago det isildu
Katarratu baino;
Agur, nere jendeak,
Hurrengo urteraino.

Hipokrates: medizinareen aita
Diaz: dira
Alberdanian: jolasean

Barrutia edo Muniberen olerki bat irakurri dut

Hazlearen izen-abizenak:

Olerkiaren izena:

Hitz hauek ez ditut ulertu:

.....

.....

.....

.....

Olerkia jasotzen duen liburuaren gai nagusia:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Irakurritako olerkiaren gaia:

.....

.....

.....

.....

.....

Olerkian agertzen diren irudi poetikoak:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

-----Olerkia klasekideen aurrean errezitatu-----

Neoklasizismoaren ezaugarriei buruzko laburpena.
Zertan islatzen da Neoklasizismoa Oihenarten olerkietan?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Gaurko olerkigintzan ba al du islarik Neoklasizismoak?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

EUSKAL POESIAREN HASTAPENAK

Kapitulua

- 1.- DEKORAZIO OLERKIAK / KOPLA ZAHARRAK**
- 2.- EUSKAL BALADA**
- 3.- PASTORALA**
- 4.- ERRENZIMENTUA**
- 5.- BARROKOA**
- 6.- KLASIZISMOA**
- 7.- NEOKLASIZISMOA**

Lehenengo bi kapituluak ahozko literaturarekin lotura estu-estua daukate.

Hirugarrenak, ahozko literaturaren garaiko egitura izan arren gaurko pastoralak bere idazlea izaten duenez, ahozkoaren eta idatziaren artean kokatu dugu.

Hurrengo lau kapituluak euren egile ezagunak dauzkate. Gutxi izan arren korrante literario bakoitzeko bat edo bi aurkeztu ditugu.

Ekoizlea



Banatzailea



Getaria, 18 - behea
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608

artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

LG: VI - 06 / 05

Ikasmaterial honek
Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du.

2005 / 02 / 14